



Europako Osasun Txartelaren
Ordezko Behin-behineko Ziurtagiria

INFORMAZIO-OHARRA

Europako Osasun Txartelaren (TSE/EOT) Ordezko Behin-behineko Ziurtagiria (CPS/OBZ), ikuspuntu mediku batetik beharrezkoak gertatzen diren osasun prestazioak jasotzeko eskubidea akreditatzen duen dokumentu pertsonal eta besterenezina da, Europa, Suitza eta Erresuma Batuko (1) Eremu Ekonomikoaren lurraldean eginiko behin-behineko egonaldi batetan, Prestazioen izaera eta aurreikusitako egonaldiaren iraupena kontuan hartuta, egonaldirako arrazoa turismoa, lanbide jardura bat edo ikasketak izatea alde batera utzita.

CPS/OBZ ez da erabilgarria izaten lekualdatzearen helburua osasun tratamendua jasotzea izaten denean, kasu horretan beharrezkoa da Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak (INSS) dagokion formularioa bidaltzea, Osasun Zerbitzu Publikoaren aurretiazko aldeko txostena lagun. Halaber dokumentua ez da erabilgarria izaten zure egoitza beste Estatu bateko lurraldera lekualdatzen duzunean.

CPS/OBZ-ren indarraldiko erabilerak baldintzatu egiten du titularra eskuratu zuen uneko baldintzak betetzen jarraitu behar izatera. Bestela, sortuko liratekeen gastuak okerreko prestazioen kontzeptuan erreklamatu ahal izango bailirateke, (CE) 883/04 Araudiko 76. artikuluan aurreikusiari jarraiki.

CPS/OBZ eskaintzera datorren estaldura eta TSE-rena berdinak dira. Zenbait kasutan kopuru finko bat edo osasun laguntzatik eratorritako gastuen portzentaje bat ordaindu beharko duzu, jomuga duzun Estatuko aseguratuen baldintza berdinetan. Zenbateko horiek berreskuraezinak dira.

Espainiakoa edo Informazio Ohar honen amaieran adierazten diren herrialdeetako batekoa ez bazara, Espainia barne eta Danimarka, Suitza, Liechtenstein, Islandia edo Norvegiara bazoaz, herrialde horietan osasun prestazioak jasotzeko eskubiderik ez duzu izango.

CPS/OBZ eskatzeko edo berritzeko izapidea zure etxetik egin ahal izango duzu Zure Gizarte Segurantza atarian (<https://sede-tu.seg-social.gob.es>) edo <http://run.gob.es/ovfplp> Gizarte Segurantzako Egoitza Elektronikoa edo bestela Gizarte Segurantzako APP-ean.

Egoitza herrialdean zure CPS/OBZ onartuko ez balitz, SOLVIT sarera zuzendu zintezke (solvit@ue.maec.es). Gizarte Segurantzako Araudi Komunitarioak aplikatzen dituzten administrazioen arteko arazoak ebazteko doako zerbitzura.

(1) **CPS/OBZ onartzen duten estatuak:** Alemania, Austria, Belgika, Bulgaria, Zipre, Kroazia, Danimarka, Eslovakia, Eslovenia, Estonia, Finlandia, Frantzia, Grezia, Hungaria, Irlanda, Islandia, Italia, Letonia, Liechtenstein, Lituania, Luxenburgo, Italia, Norvegia, Herbehereak, Polonia, Portugal, Erresuma Batua, Txekiar Errepublika, Errumania, Suedia eta Suitza.